euskara lau haizetara

EUSKARAREN HILABETEA

2016KO OTSAILAREN 16TIK MARTXOAREN 11RA

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

LH3 eta DBHko
ikasleen lanak

iruner berezia

ARGITARATZAILEA: 837 Comunicación y Publicidad S.L.

MAKETAZIOA: Joseba Arozena.

LEGE GORDAILUA:

SS-230-94

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

AGURRA

Euskara lau haizetara

Hi gazte, ba al hekien?

Irunen gauza asko ditun/dituk egiteko. Animatu hadi!

Irunen, 2016ko martxoan
Josune GOMEZ SARASOLA
EUSKARA ORDEZKARIA

AURKIBIDEA

BELASKOENEA
- ERAP emanaldia 5

DUNBOA
- Bihurtu baliagarri "baliorik ez duena" 6

EGUZKITZA
- Ikasleen iritziak 7
- Egunerokoa 18-19

ELATZETA
- Urtebetetze madarikatua 8

HIRUBIDE
- -Amazoniako misterioa 9-10-11
- Errezetak 20-21

IRUNGO LA SALLE
- Gabonetako oporrak 12
- -Marteko erregina 22
- Errezeta-narrazioa 27

EL PILAR
- Txisteak 13
- Esku-lanak 23
- Txipi eta Eli 28

LEKAENA
- -Txisteak 14

TOKI ALAI
- "La mecánica del caracol" Toki Alai eskolan 15

SAN VICENTE DE PAUL
- Narrazioak 16-17
- Komikiak 24-25-26
- Erreportaia- "Mikel Laboa" 29-30-31

RAP EMANALDIA

Urtero bezala,ekintza asko ospatu dira gure eskolan euskararen egunaren inguruan· Guretzat, jaiak, aste bateko iraupena izan du eta ekintza dibertigarrietan parte hartzeko aukera izan dugu denok: altxorraren bila, karaokea, krossa, antzerkiak eta ipuinak, irratsaio bereziak, lehiaketak, euskal jolasak eta dantzak, muralak... Hirugarren zikloko ikasleok,aurten, **rap lehiaketa** egin dugu· Gela bakoitzak bere zatia asmatu eta bere koreografia prestatu du· Hemen daukazue gela bakoitzean ateratako rap-bertsoa·Rap gustukoa badaukazue, ikus:
www·belakoenea·hezkuntza·net/web/guest/vídeos



BELASKOENEA 3·ZIKLOA

Dunboa Sèigarren maila.:

Bihurtu baliagarri "baliorik ez duena"

■ Akuilatu zure iaudimena eta bihurtu itzazue baliagarri ondoko gauza hauek:

HONDAKINA	ZERTARAKO ERABILIKO ZENUKE
Galleta kaxa bat.	Etxe bat, kotxe eta edota manualidadeak egiteko.
Edan berri duzun freskagarri pote bat.	Telefonoa, boloak, itsulapikoa, txuntxunuroak, egiteko.
Gutunontzia betea duen propaganda.	Itsasontzia eta hegazkina egiteko.
Mermelada zeukan kristalezko pote bat.	landareak, botoiak, lapitzak.... gordetzeko
Beirazko botila ez itzulgarria.	Loreak landatzeko.
Zuk gehien maite duzun kolloniaren beirazko ontzia.	Landareak ureztatzeko. Adorno modura jartzeko.
Eroskętetatik ekarri duzun plastikozko poltsa.	Zakarrak biltzeko eta botatzeko. Peto bat egiteko.
Jada, gustatzen ez zaizun jokoa edo jostailua.	Beste pertsonei emateko.
Leungarri pote hutsa.	Mobila kargatzen den bitartean hor sartzeko. Tapoia zulatu eta landareak ureztatzeko.
Txikia geratu zaizun arropa.	Beste pertsonari eman. Galtza motzak egiteko kamisetak manga moztuta top egiteko.
Ogitartekoa biltzeko erabili duzun aluminiozko papera.	Beste momentuetan erabiltzeko. Eskuekin modelatu eta gero margotzeko.
Joan den ikasturtetik soberan geldítutako koaderno orriak.	Hurrengo ikasturtean erabiltzeko. Azala apaindu eta argazki albumarako.

Telesbistan hainbeste iragarkiren beharrean gaude?

Niri telebista ez zait asko gustatzen, baina ikusten dudanean, gutxien gustatzen zaidana hainbeste iragarki egotea da. Zerbait ikusten ari naizenean eta bat-batean 5 minututan iragarkiak egotea ez zait gustatzen. Horregatik gehienetan telebista ikusteaz nekatzen naiz eta ez dut ikusten.

Izan ere, iragarkiak jarri behar dituzte eta batzuetan lagungarriak dira, adibidez, zerbait erosi behar duzu edozertarako eta iragarki batean ikusten baduzu, non aurki dezakezun dakizu. Nire ustez, iragarki gutxiago jarri behar dituzte eta ezberdinak, azkenean nekatzen zarelako.

Iria Bernal

EGUZKITZA BHI - 1. maila

URTEBETETZE MADARIKATUA

Egun ilun batean Patxi lagunekin bere urtebetetzea antolatzen ari zen.

-Non egingo dugu aurten askaria Patxi?

-Herritik kanpo dagoen atrakzio parke abandonatura joan nahiko nuke.Aurten emozioa bizi nahi dut. JAJAJA!

-Egitan ? Horrek beldur handia ematen du- esan zuen Mirenek.

Eta esan bezela, gauean txirrindaz abiatu ziren parkera.

Sartu bezain laster lekua ikertu zuten beldurtienak lasaitzeko.

Benetan zirrarragarria zen lekua: Noria gelditurik, auto txokeak puskatuak, montaña rusa erdoilduta ...

-Uffff !Zorionez ez dago inor- esan zuen Mirenek

-Begira! Begira! Merendatzeko lekurik egokiena aurkitu dut- esan zuen Josepik.

-OK,Josepi !Mundiala zara!- erantzun zioten lagunek.

Orduan, *Olla* izeneko atrakzio borobil horretan apatz eseri ziren denak eta erdian linterna guztiak piztuta utzi zituzten.

Bokatak jaten zituzten bitartean txisteak eta asmakizunak kontatzen ari ziren.

-Nik beldurrezko pasadizoa kontatuko dizut- esan zuen Txominek.

Baina halako batean...megafoniaz alarau beldurgarria entzun zen parke osoan:

-"HILKO ZARETE!!!!!

Lagunek garrasika elkar besarkatu zuten. Bat-batean Txominek, Mirenek eta Josepik hanka egin zuten handik eta Patxi arnasarik gabe gelditu zen Olla erdian.

Bakarrik zegoen deabruaren parke hartan, again bere azkeneko urtebetzea izango zen...ikaratuta zegoen.

Momentu hartan argi guztiak piztu ziren eta megafoniaz haur kanta bat entzun zen :

-ZORIONAK ZURI , ZORIONAK ZURI...

Eta Patxik bere gurasoak eta lagunak txaloka ikusi ztuen beregana hurbiltzen.

-Ez zenuen emoziorik nahi ?eh Patxi? - esan zioten lagunek.

Eta denek barrez besarkatu zuten.

Unai Rojo, Beñat Arroyo, Maria Zudaire eta Josu Perez 5. B

Elatzeta

AMAZONIAKO MISTERIOA

Egun bereziaren bezpera zen, baina egun hori ere nahiko berezia zen. Naturen urtebetetze bezpera, hain zuzen. Candy, Cate, Lesly, eta bere maskota Super Dog, Cateren etxean bildu ziren, festan zer egin adostu eta prestatzen hasteko. Azkenean, metro bat bezain altua zen natazko eta marrubizko pastela egitea erabaki zuten.

Hurrengo egunean, normalean baino lehenago jaiki ziren bostak, eta pastela egiten hasi ziren. Handik ordu pare batera, dena prest zegoen, eta Naturen etxe aurreko lorategian utzi zuten dena. Bostak batera sartu ziren Naturen etxean, Naturi begiak estali eta lorategira eramateko. Lorategira iritsi ziren, baina pastela ez zegoen! inguruetara begiratu zuten, eta zuhaixka artean norbait, pastelarekin urruntzen ari zen. Super Dog haren atzetik desagertu zen, eta ez zen gehiago agertu.

- Nire txakurra! bahitu egin dute! - garrasi egin zuen Leslyk.
- Lasai, ez zaitez kezkatu, bere bila joango gara eta -erantzun zion Catek.
- Baina, zer gertatu da? zergatik zaudete horrela? - galdetu zuen Natuk, oraindik jazo zenaz ohartu gabe.
- Zuri urtebetetze-festa egin nahi genizun, baina pastela lapurtu egin dute, eta orain, txakurra bahitu dute -esan zion Leslyk.
- Ba, orduan, pastela eta txakurraren bila joan beharko dugu, eta pastel-lapurra nor den argitu ere bai, bide batez. Alaitu aurpegiak, neskak! - animatu zituen Candyk.
-Tira, ez naiz gertatutakoaz hain ondo ohartu, baina, arrazoi du -onartu zion Natuk.

Orduan Catek eta Leslyk aipatu zuten:

- Ondo dago, baina... lur jota utzi gaitu gertatu denak, eta... eta hemendik ordu batera hemen elkartuko gara berriro, abentura hasi besterik ez da egin, abenturarako prest?- moztu zien Candyk.
- Bai! - erantzun zuten besteek.

Beraz, ordubeteren buruan, han zeuden denak, motxilatxoekin prest. Abenturari ekin zioten, nataren arrastoei jarraituz. Papertxo bat aurkitu zuten, eta hau zihoen:

Oraindik ere goiz zabiltzate, baina ez pentsa lortuko duzuenik, hau hasiera besterik ez da eta! <u>OHARRA</u>: pastela eta txakurra salbatu nahi badituzue, munduko oihanik handienera joan beharko duzue.

- Badakit! badakit zein den, Amazonia da! -esan zuen Natuk.
- Beraz, badakigu nora joan behar dugun -esan zuen Leslyk.

Eta Amazoniarako bidean jarri ziren. Iritsi zirenean, ez zegoen nata arrastorik, eta zailagoa zen jarraitzea.

- Nola jarraituko dugu?, Amazonia erraldoia da! -aipatu zuen Candyk.
- Baaaa... begira, hor bidezidor bat dago, goazen! -erantzun zion Catek.

Bozketa egin zuten, eta laurek jaso zuten eskua, baina Candy ez zegoen ziur.

- Auskalo nora eramango gaituen,ai ene...! -marmarka zioen Candyk.

Oinez abiatu ziren, bidezidorrean zehar, ibili eta ibli, ibili eta ibili... sekulako altuera zeukan amildegi bat zeharkatzen zuen zubitxo baten aurrera iritsi ziren, eta han ere, beste papertxo bat zegoen:

ZORIONAK! asmatu duzue! ea oraingo honetan amildegia pasa eta jarraitzeko adorerik duzuen!

- Baina zer uste du horrek, oilobustiak garela, ala? -haserretu zen Cate

Eta pauso osoa eman baino lehen, zubiaren soka bat askatu eta erori egin zen, eta horrekin batera gainerako guztia. Neskek ez zekiten nola igaro, eta azkenean, Naturen tristurarako, zuhaitz luze bat bota zuten, eta enborraren gainetik pasa ziren bestaldera. Lehenago bezala, berriro ere bideari ekin zioten. Handik bizpahiru minututara, arkaitz zabal eta luze bat zegoen, eta arkaitzean bertan, tunel moduko bat. Ez zeukaten beste irtenbiderik, eta tunel barrura sartu ziren. Tunela bukatu zen, baina ez zegoen irtenbiderik, iglua bezalako gela borobildu batean zeuden, bazter batean, eta erdian, garaiera baxuko zutabe batean, harri batean, zerbait idatzita zegoen:

Ez nuen uste baina, oso azkarrak zarete. Baina, hala ere, ni bizkorragoa, kar, kar, kar! Malaysian ibilia naiz, eta idatzi dudana ea asmatzeko gai zareten, bestela ez duzue aurrera jarraitzerik!:

"MELETAKKAN SATU KAKI DI DINDING"

- Ta orain, zer? ez dakigu malaysieraz! zer egingo dugu? -zioen Candyk, larriturik.

Baina Natuk, bazekien zertxobait, eta esan zuen:

- Nik, badakit zer jartzen duen: hanka bat paretan jartzeko -esan eta egin.

Natuk hanka paretan jarri zuen, eta hormak, zabaldu egin ziren. Eta neskak, birritan pentsatu gabe, kanpora atera ziren. Oinez jarraitu zuten, eta soilgune batera iritsi ziren, ez zegoen zuhaitzik. Soilgune haren erdian, norbait zegoen, buelta emanda, beste aldera begira. Cate, beregana zihoan, beste neskekin, baina bat- batean egurrez egindako kaiola batean geratu ziren, harrapaturik. Buelta emanda zegoenak, bira erdia egin zuen, eta denen harridurarako, pastelarekin zegoen, eta Super Dogekin, beraien etsairik ankerrena.

- Marijuana!- egin zuten garrasi laurek.
- Bai, ni naiz, lehengoan espaziora bidali zutena, eta mendekatzera nator- esan zuen.
- Baina, nola zaude berriro hemen? nola iritsi zara? – galdetu zion Leslyk.
- Jakin nahi duzue? Ba... espazioan, airean nenbilela, espaziontzi bat hurreratu zitzaidan, eta bertan sartu nintzen. Espazio-ontzi gidaria sokaz lotu, eta bazter batean utzi nuen. Gero, ontzia gidatzen hasi nintzen, baina distraitu egin nintzen, eta hemen, Amazonian erori zen. Ez nekien nola mendekatu, eta zuen festa hondatzea bururatu zitzaidan, eta gero jakingo nuela nola mendekatu. Zuek, itsu itsuan erori zarete nire tranpan, eta oraingoan ez duzue lortuko! kar, kar, kar!
- Barre txatxu horrek, sutan jartzen nau, ezin dut jasan, akabatuko zaitut! -bota zuen Catek.
- Nori bururatzen zaio nire lagun hoberenetako bati halakorik egitea? ezin da onartu, eta egin duenak, ordainduko du! -esan zuen Candyk.

Orduan, Natuk, bere ahalmenak erabiliz, begiak estali zizkion Marijuanari platanondo baten hostoaz. Super Dogek, kaiola hautsi zuen bere hortzez, eta lau super neskak aske geratu ziren. Candy, gardena bihurtu eta ahoa irekiarazi zion. Bitartean, Catek, opiltxo gaseragilea sartu zion ahoan, irentsi zezan.

- Bukatu dugu, neskak, hartu pastela eta gauzak eta goazen hemendik! -esan zuen garrasika Catek.
- Zergatik? -galdetu zuen Natuk.
- Catek Marijuanari opiltxo gaseragilea eman dio jaten, eta azkar ez bagoaz, eztanda egingo du! -esan zuen Candyk.

- Zer esan nahi duzue, gasak sortuko zaizkiola eta gero... gerokoak! -moztu zion Leslyk Naturi.

Ahalik eta bizkorren handik urrundu ziren, eta ez ziren gelditu, beraien burua salbu egongo zen lekura iritsi arte. Neka-neka eginda, goseak egonda, pastela bertan jatea erabaki zuten. Beraz, hor bertan ospatu zuten festa, Marijuanaren gas hotsak entzunez.

- Mmm, ze ona dagoen pastela! -esan zuen Natuk- , eta mila esker! ez dut egun hau inoiz ahaztuko.

Hai-Trieu Alzaga Truong
HIRUBIDE DBH 1

GABONETAKO OPORRAK

Kaixo lagunak, gaur hitz egingo dugu Gabonei buruz. Laster Gabonak hasiko dira. Kaleak, etxeak … apaingarri koloretsuekin beteko dira. Errege Magoak eta Olentzeroa etortzen dira gure etxeetara opariak banatzera.

Gauza asko gertatzen dira Gabonetan. Aurten, eskoletan bi edo hiru aste jai egongo dira. Hainbat apaingarri jartzen da, adibidez, Gabonetako zuhaitza, portalea, zuhaitzean jartzen diren argi koloretsuak... Abenduaren 21ean, Santo Tomas eguna ospatzen da eta txistorra jaten da baserritarrez jantzita. Abenduaren 24an, Gabon-gaua ospatzen da eta familiak elkartzen dira afaltzeko. Abenduaren 25ean, Olentzero etortzen da opariekin eta umeak emozioz irekitzen dituzte opariak. Abenduaren 31n, Urte-zaharra ospatzen da eta gauean mahatsak jaten dira. Urtarrilaren 4an, eskutitza ematen diegu Erregeen laguntzaileei. Urtarrilaren 5ean, Melchor, Gaspar eta Baltasar karrozetan ibiltzen dira kaleetatik. Urtarrilaren 6an, umeek poz-pozik irekitzen dituzte Erregeek ekarritako opariak. Gabonetan hainbat janari jaten dira, adibidez, errege-opila, arrain-sopa, mahatsak...Abenduaren 24an eta urtarrilaren 5ean ura, ardoa eta zerbait jateko jartzen diegu Erregeei eta Olentzerori. Egun horietan lagunak eta familiak bazkaltzeko edo afaltzeko elkartzen dira. Umeak lagunekin abestera ateratzen dira diruaren truke.

Gabonetan alde onak badaude. Familiarekin egoten gara eta ondo pasatzen dugu guztiok. Umeek opariak izaten dituzte, Olentzero eta Errege Magoen partez. Lagunekin ondo pasatzen dugu beraiekin jolasten. Pentsamendua lasaitzen dugu kurtso hobeagoa izateko. Ahal dutenek oporretara joaten dira bere familiarekin. Hemen ez duzun famili ikustera joaten zara bere herrialdeetara. Gehiago lo egiten duzu eskola egunetan baino, eta hori ona da geure bururako. Olentzero eta Errege Magoek ekarritako opariekin egun guztian.

Gabonetan gauza txarrak ere badira. Adibidez, ez dituzu gelako lagun guztiak ikusten. Gurasoak lan egiten dutenez, ez dituzu asko ikusten. Batzuetan euria egiten du eta etxean geratzen zara.

Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkizuegu gure burutazioak irakurtzeagatik.

Zorionak eta urte berri on!

Lucía Díez
Elaia Errazkin
Maider Navarro

TXISTEAK

Mutiko bat zinemara doa eta sarrera saltzaileak esaten dio:

-Aizu zure bosgarren aldia da sarrera erosten duzula!

Mutikoak erantzuten dio:

-Zinemako tuntunak sarrerak puskatzen dizkidalako!

Zergatik dago mateko liburua negarrez?

Problemak dituelako.

Behin, gaileta bat mendian zebilela, hala esaten zuen:

-Gaileta bat naiz, gaileta bat naiz, gaileta bat naiz!

Ehiztari bat agertu zen eta eskopetarekin tiro egin eta zulo bat egin zion. Hortik aurrera, gailetak honela zioen:

-Erroskila bat naiz, erroskila bat naiz, erroskila bat naiz!

Bazen behin, Pablito izeneko mutil bat, bere amarekin autobusera zihoala, amak esan zion.

-Pablito, hiru urte dituzula esan behar duzu, autobusa ez ordaintzeko.

-Baina ama, nik lau urte dauzkat!

-Zuk hori esan!

Autobusean, autobus gidariak:

-Aizu, zenbat urte dituzu?

-Hiru urte ditut.

-Eta noiz betetzen dituzu lau urte?

-Autobusetik jaisten naizenean.

EL PILAR IKASTETXEA (5.MAILA)

GURE MASKOTAK

SULTAN

Nire maskotak Sultan izena zuen. Txakur handia eta polita zen. Ilaje marroia eta beltza zeukan. Sultan atezain ona zen. Urtero, baloi bat zulatzen zuen eta gero berria ez zuen nahi. Gainera, mendira joaten ginenean baloirik gabe, beste haurren baloia hartzen zuen.
Zaindaria ona ere bazen. Txikitan, erortzen nintzenean , kamisetatik hartu eta altxatzen ninduen.
Sultan familiako kuttuna zen.
Faltan botatzen dugu.

Alberto Rodríguez LH5

BETTY

Nire maskotak Betty du izena. Bere ilajea zuria da. Lau hanka txikiak ditu eta isatsa luzea du. Bere begiak marroiak dira. Nire txakurra alaia eta jostaria da. Ni bakarrik nagoenean niregana etortzen da eta berarekin jolasten dut. Pozik dagoenean hankaz gora jartzen da. Kilimak egitea asko gustatzen zaio. Mimoti hutsa da. Nire txakurra maitekorra da!

Raúl Filip LH5

LA MECÁNICA DEL CARACOL

TOKI-ALAI ESKOLAN

Pepino bonbilla

Pepinoa hartu eta elektrizitatean konektatu ondoren plaka batean jarri zuen. Gero etengailuari eman zion eta elektrizitateak pepinoa zeharkatu zuen.
Bat batean pepinoa piztu egin zen eta honekin bonbilla antzeko bat egin zuen.
Segundu batzuk pasa ondoren lehertu egin zen. Oso bitxia izan zen dena!!

Aitor Aguirre

Intxaur hegalaria

Plastikozko hodi batean intxaur bat sartu zuen eta makina berezi baten laguntzaz aire guztia atera zuen, tutua erabat hutsik gelditu arte.
Ondoren albo batean zegoen plastikoan zulotxo bat egin zuen eta intxaurra abiadura handiz atera zen. Intxaurra ez genuen ikusi, eztanda bakarrik entzun genuen.
Ah, zer sustoa!!

Mattin Garmendia

Tornado bat botila barruan

Manuk bi botila hartu zituen eta zinta isolatzailearekin zulatutako tapoiak elkartu zituen. Botila batean likido berde bat zegoen eta besteak airea zuen. Likidoa zuen botilari buelta eman zion baina likidoa ez zen jeitsi. Likidoa astindu eta beste botilara jeisten hasi zen tornado baten itxura hartuz.
Magia bikaina!

Oihana Clemos

Azaroaren 20an, EITBko "La mecánica del caracol" irratsaioko Eva Caballero eta Manu Hernández gure eskolara etorri ziren zientzia nola lantzen dugun ezagutzeko.
6. mailako gela bakoitzeko bi lagun aukeratu ziren zientziari buruzko zerbait kontatzeko.

Irratian hitz egingo genuela esan zigutenean oso urduri jarri ginen, baina gero lasaitu ginen Evak mikrofono eta grabadora txiki bat soilik ekarri zituelako eta gurekin oso atsegina izan zelako.

Yerayk, Oihanek eta Oierrek esperimentuak azaldu zituzten. Nekanek zientziaren inguruko posterrak egingo genituela kontatu zuen. Ekintza hau lan kooperatiboaren bitartez burutu zen.
Sandrak eskolan zientzia eguna nola ospatzen den adierazi zuen eta Manuk zientzialaria izan nahi duela kontatu zuen.

Ondoren Manuren esperimentuen emanaldia ikustera joan ginen, han farra asko egin genuen esperimentuak farregarriak zirelako. Aldamenean, egin zituen hiru kontatzen ditugu.

Azaroaren 27an irratsaioa etxean entzun genuen eta gurasoak oso pozik jarri ziren gu entzundakoan.

Y. Aragón – S. Borrego – O. Celaya – O. Iza- M. Blanco– N. Sagarzazu

Safariko misteriea

Bazîren behin, Afrikako safari batean, lau lagun Haizea, Paula, Yuriel eta Sebas ibaneskak. Nuriel berritzera, Sebas, herria, latzatiera. Haizea politera eta Paula ohiera. Esploratzera joan ziren, animalia arraro bat ikustera.

Halako batean, euria egin zuen eta kamuflatu behar izan ziren eta han geratu ziren euria gelditu arte. Euria gelditzean, ikusi zuen eta han le egitea erabaki zuten.

Hurrengo egunean, esnatzean, berriz ere euria ari zuen eta beldurrez kamuflatuan geratzea erabaki zuten. Orduan, gelditu ziren eta Sebas labetinto bat zela konturatu zen, labetintoan, animali arraro eta misteriotsua ikusi zuten. Ahots batzuen bidez animaliarengana iritsi ziren. Animalia hark esan zuen ezin zuela joan beraz zuten Safarian interesatu. Bidean, kanicasetik topatu ziren eta politki-politki interesatu joan ziren.

Azkenean, atzeperatu iritsi ziren. Sebas, han kan egiten geratu zen. Bidean, Nuriel negatiboetik ohitu egin zuen eta hil zen. Paula eta Haizea etxera itzuli ziren eta denak kontatu zuten.

Hala bada ala ez izan, ez dakit kontatzen eta utzi dudala Trump pasatzen.

Haizea, Paula,
6.B Nuriel eta Sebas

Eskolan gertatu zaidana

Kaixo, ni Irati naiz, hamairu urte ditut eta Bizkaian bizi naiz. Gaur eskolan gertatu zaidana kontatuko dizuet baino lehen esan behar dizuet ez kopiatzeko azterketa batean bestela...

Gaur eskolan bigarren orduan euskerako azterketa bat izan dut. Ni oso urduri jarri naiz ez dudalako ikasi, baina ez nau harritzen ni ez dudalako inoiz ikasten eta aprobatu badut pasaden asteko azterketa txiripaz izanda. Bero, esaten ari nintzen bezela, ez nekien ezer, bakarrik, jarri dut data eta izena. Orduan burooratu zait nire ondoko pertsonari kopiatzea. Dena kopiatuta neukan, baina, falta zitzaidan azkeneko ariketa. Baaatean! maixuak harrapatu nau eta esan dit gurasoei deituko dielа! eta, eta gainera suspenditu egin dit azterketa!

Gurasoak deitu ditu eta kontatu die pasaden guztia. Haregatik etxean nago nire logelan zigortuta eta ezer egin gabe! orain badakit zer egingo duan azterketa bat duanean: Beti, Beti ikasi.

BURRUNDARA BATEAN

Nik musika atsegin dut. Festetan oso altu egotea gustatzen zait , baina ez momentu guztietan, bestela, buruko minez bukatzen dut. Musika soinua dela esango nuke nik, baina bolumena altuegi dagoenean, edota luzaroan entzuten ari naizenean, zarata dela iruditzen zait. Soinu altuegia sortzen duten tresnek izugarri estresatzen naute (musika aparte utzita), oso urduri jartzen naute. Horregatik, hobe da musika luzaroan oso altu ez jartzea osasunerako kaltegarria delako.

BIZIPENA

Orain dela bost urte, aitarekin paseatzera joaten nintzenean, Sargia parkeraino ailegatzen ginen eta beti esaten nion San martzial mendiko ermitan Olentzero bizi zela. Aitak baietz esaten zidan eta orain, hortik pasatzean, berriro esaten diot aitari Olentzeroren etxea hor dagoela. Biok barrez hasten gara eta nik San Martzial mendiko ermitara begira geratzen naiz.

Yasmina Valencia 2. D

TELEBISTA

Telebistan programa asko daude, baina niri munduan zer gertatzen den jakitea gustatzen zait, horregatik, Teleberri ikusten dut. Teleberrin informazio eta albiste pilo eskaintzen dituzte euskaraz. Albisteak bukatu eta gero kirolari buruzko saioa hasten da, baina beste kirolei buruzko informazioa pixka bat eman ondoren, ia ia guztia futbolarekin zerikusia duten berriak eskaintzen dituzte. Nik uste dut hainbeste futbola ematen dutela diru asko mugitzen duelako, Gainera mutilen taldeen berri ematen dute bakarrik. Gustatuko litzaidake beste kirol gehiagoz hitz egitea, adibidez, tenisari buruz.

Mª Eugenia Vazquez 1.D

Kaixo, Telmo naiz eta -------kanalean lan egiten dut.
Gure programazioa oso zabala da, baina erdia baino gehiago futbolari buruzkoa da. Nik Boom saioa gustukoa dut, baina oso gutxitan eskaintzen dute. Nire ustez konkurtso eta dokumental gehiago jarri beharko zituzten.
Emaidazue zuen iritzia eta programazioaz arduratzen denari proposamenak esango dizkiot.
Ondo izan.

Telmo Aracama 1.D

SURFA

kaixo Iraia:
Gaur, eskolako liburutegian egon naiz eta surfeko liburua hartu dut, oso interesgarria da !!, surflari baten istorioa kontatzen da. Zertaz doa azalduko dizut. Bere izena Jack O·neill zen, surfeko denda ireki zuen, baina, san Franziskotik 90mila hegoaldera aldatu zen, hango eguraldia epelagoa zelako. PVC-z egindako jantzia asmatu zuen lehenik. handik gutxira hegaldi batean, DC-3 hegazkinean, neopreno izeneko materiala erabili zutela ikusi zuen eta material horrekin esperimentatzen hasi zen. Neoprenozko jantzia sortu, eta bere dendan saltzen hasi zen. 60ko hamarkadan surfak sekulako loraldia izan zuen. Jantziari nylonezko geruza erantsi zion eta atzean lokarri baten bidez ixten zen kremailera ipini zion. Jack-en semeak, Pat O·neill, surflarien orkatila eta ohola lotzen zuen lokarria asmatu zuen. Aitak lokarriarekin istripua izan eta begia galdu zuen.
Negozioa Europara zabaldu zen Jack-ek semearen eskutan utzi zuenean. Gaur egun Jack-ek negozioa alde batera utzi du eta hainbat proiektu sortu ditu dislexia duten umeei laguntzeko.
Beno Iraia, gustatu zaizu?
liburua oso interesgarria da!!!!! agur!!!

IreneCarrey 1.B

Izena
Sagar tarta

Osagaiak:

Kilo bat sagar
Koilarakada bat irin
Hiru arrautza
Lau koilarakada azukre
Koilarakada erdi bat legami
Azukrea

Prestatzeko era:

Sagarrak zuritu eta mehe-mehe moztuko ditugu. Gero arrautzak irabiatu eta azukrea, legamia eta irina gehituko ditugu. Dendena nahastu dugunean gurinez bustitako bol batean jarriko dugu. Ondoren ebakitako sagarrak gehituko dizkiogu. Labean 180º gradutan utziko dugu.

Izena

Patata papoiak (lau lagunentzako)

Osagaiak:

9-10 patata
Oliba olioa
Gatza
Hirugiharra
Ogi birrindua
3-4 arrautza
perrexila

Prestatzeko era:

Lehenbiziko patatak sartzen dira eltze batean urarekin, egosten dira 60-90 minutuz (patatak bigundu arte), ondoren patatak utzi behar ditugu 30 minutu gutxigora behera hozten. Hori egin eta gero, patatak zuritzen dira eta zapaltzen edo txikitzen dira masa bat geratu arte.
Beste aldetik arrautzak irabiatzen ditugu eta gatza botatzen diegu, ondoren patatarekin nahastu behar ditugu eta ogi birrindua botatzen dugu.
Hirugiharra frijitzen dugu eta botatzen dugu nahasketara. Hori egin ondoren oliba olioa zartagin baten jartzen dugu eta nahasketa koilarakadaka botatzen dugu zartaginera frijitzeko.

MARTEKO erregina



EGILEAK: Amane Agerralde (1.D) eta Joane Rodríguez (1.D) Irungo La Salle.

Hontza

Oso eskulan polita eta erraza egin dezakezue. Pausoz-pauso zein materal behar dituzuen eta nola egiten den azaldako dizuegu, argazki eta guzti. Orain animatu eta egiten hastea besterik ez duzue. Animo!!

Materiala:

- 2mm-ko foami laminak, txuri, marroi, beltza eta naranja.
- 12 cm-ko porexko arrautza.
- 7cm-ko porexko bola
- 3cm-ko 3 porexko bola
- 7 cm-ko arrautz bola
- Guraizeak
- Erregela
- Kuterra
- Brotxeta makiltxoa
- Marko akrilikoak: naranja, horia, beltza, txuria
- Ur barniza
- Pintzela
- Silikonazko pistola
- Etxeko plantxa

Nola egin:

► Lehenik, egitura egin, argazkian azaltzen den bezala. Gorputza aurretik txuriz estali, atzetik marroiz. Hegoak marroiez estali eta burua aurretik txuriz eta atzetik marroiz.

► Foami laminazko hegoak egin, kolore ezberdinetakoak, argazkiak erakusten duen moduan.

► Hegoak argazkian agertzen diren bezala moztu.

► Ondoren, lumak jartzen hasi. Aurretik hasi, goitik behera, hankak eta gorputza osatzen dituzten bolatxoak

► Jarraian, gauza bera egin atzealdetik. Isatsetik hasi, beltzez.
Gorago zortzi luma marroi ilun jarri eta bukatzeko beste lau marroi argi.

► Hegoak egiteko, hegoak hiru lerro imajinariotan banatu: ertza, aurrealdea(luma beltzak) eta atzealdea (luma marroi argiak). Bata bestearen gainean jartzen joan, irudiak erakusten duen moduan.

► Begietako lumak egiteko, bi zirkulu egin. Hauek moztu, argazkian ageri den bezala eta itsatsi. Bekainak egin eta begien gainean itsatsi. Bekain txikiarekin buruko lumen bukaera estali eta bekain handiarekin, begiari forma eman. Bekainen elkargunea estali.

► Begiak egiteko bola laurdena erabili. Bola laurden hauek foami naranjarekin estali. Pintzela erabiliz, begia margotu. Ondoren, barnizatu.

► Begiak bere tokian itsatsi eta kontu handiz, betazalak ipini, begiak espresio gehiago izateko.

► Bukatzeko, hiru foami laranja zati erabili atzaparrak egiteko. Hiru atzaparrak itsatsi eta azkazalak egin. Azkazal hauek ere itsatsi.

EGILEA: Ariane Herrero DBH 2- El Pilar

TXISTEAK

INURRIEN SOINUA

Bi ikaslek Pernando tentatzeko nahian galdera hau egin zioten:

-Adizu Pernando, han goiko harkaitz hartan iladan doazen inurri horiek ikusten al dituzu?

-Ez.Nik ikusteko urrutiegi dago hura.Ikusi, ez ditut ikusten baina inurrien oin hotsak argi eta garbi entzuten ditut.Zuek ez ala?

-Ez.

-Nik begietan daukadan akatsa zuek nombait belarrietan daukazue.Arre asto arre!-eta aurrera jarraitu zuen bere astoarekin.

PERNANDOREN HERIOTZA

Egia ala gezurra ,ez dakigu baina Amezketan diotenez,gehiegi jan ondoren ura edan omen zuen Pernandok.Eta hiltzeko zorian zegoela hau esan zuen:

-"Nik hiltzen naizenean zabaldu jendearen artean berri hau:beti erdi-goserik eta mixerian bizi izan arren,Pernando ez duela goseak hil ;ongi aseta hil naizenean.

GALDERA

-Aita zer uste duzu hain seme galant bat edukitzeagatik?

-Ez dakit seme hori aitonari galdetu.

Nahia Echeverria Jarones
2°a

Maialen Prada

Aitona hilzorian omen zegoen, eta ohetik begiak ireki, eta hor hasten da hizketa:
– Maria, hemen al zaude?
– Bai, bai, hemen nago. Hemen nago.
– Andres, hemen al zaude?
– Bai, hementxe nago aitona, hementxe nago
– Xabier , hemen al zaude?
– Bai, lasai aitona, hemen nago. Hemen gaude denak.
– Denak hemen al zaudete?
– Bai, bai, zure ondoan, hemen gaude denak.
– Eta denal hemen bazaudete, zer egiten du pasilloko argiak piztuta?

Haur batek dio amari ikastolatik etxera joandakoan:
– Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.
– Oso ongi, oso ongi!
Eta zein da bigarren notizia? –galdetzen dio amak.
– Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

¡RIIING!
Ba al dago Agustin?
Ez "inkomodin" nago!
Andre bat sartzen da harategira eta esan dio harakinari
Txerri burua hori, mesedez!
Barkatu, andrea, baina hori ispilu bat da....

INGURUKOEN IRRIBARREA LORTZEKO ERREZETA

Errezeta hau ez da beste edozein bezalakoa. Errezeta honen osagaiak ez dira irina, azukrea eta legamia. Ez dira beti berdinak, aldakorrak dira, bakoitzaren inguruko pertsonen araberakoak. Osagai batzuk besoak, irribarre eta keinuak, begiradak, hitzak eta bihotza izan daitezke.

Errezeta honen emaitza lortzeko moduak asko dira. Nik, adibidez, horrela lortzen dut ingurukoen eta maite ditudanen irribarrea: Ene lagun mina denean eta pozik dagoenean ez dut ezer asko egin beharrik, baina goibel badago irribarre batekin alaitzen saiatzen naiz. Gero hitzak hartu eta "zer duzu?" batekin bera samintzen dutenak ateratzen saiatzen naiz. Orduan dena askatzen du eta hobe sentitzen dela iruditzen zait. Baliteke oraindik irribarrea ez lortu izana, beraz, besoetaz baliatuz besarkada estu bat ematen diot. Eta orduan bai, orduan bere ezpainek U bat marrazten dute eta nireak poz horretara batzen dira.

Harekin harreman esturik ez dudan gelakide arrunt bat baldin bada irribarre, keinu edo "epa" bakar bat erabiliz nahikoa izaten da, hark ere keinu berdina egin diezadan.

Zakarra den pertsona baten irribarrea lortu nahi baduzu, errezeta konplexuagoa da. Kasurik okerrenean, hark zure adeitasuna hitz itsusiak osagaitzat harturik eskertuko du. Baliteke berak errezetan parte hartu nahi ez izatea eta lehen egiten zizuna baino kasu gutxiago egitea. Jatorra izateko gogoak ematen badio, kasurik arraroenean, irribarreño bat aterako dizu eta zure errezetak emaitza ona izango du.

Harrigarria da errezeta honen osagaiak hain sinpleak izanda hain emaitza ezberdinak eta ugariak lortu ahal izatea. Nahi baduzu, proba ezazu!

Amaia Irastorza, Iune Madejón


TXIPI
eta
ELI

ZORTZI URTE MIKEL LABOA GABE

Gaztetxoak garenok ez dugu ezagutu (edo ez gara gogoratzen). Euskal Herriko artistarik ospetsuenetakoa izanda eta bere heriotzaren urteurrena aprobetxatuz, goazen ikastera pixka bat bere bizitzari buruz!

HAURTZAROA

Mikel Laboa Donostian jaio zen 1934ko ekainaren 15ean. Bere gurasoek musika maite zuten. Baina Gerra Zibila hasi zenean, bere aitak Frantziara joan behar izan zuen, eta ama Lekeitiora joan zen zazpi seme-alabekin, aitarengandik urrunduz. Laboak Gernikako bonbardeaketa bizi izan zuen hiru urte besterik ez zituenean.

Hau da Mikel Laboaren argazki bat haurtzaroan.

Laboak Gernikako bonbardaketa bizi izan zuen hiru urte besterik ez zituenean.

IKASKETAK ETA LANA

Medikuntza ikastea erabaki zuen. Lehenengo urtea, (1953an) Madrilen igaro zuen. Bigarrena, Iruñean. Bertan egin zuen bere lehenengo kontzertua; Gaiarre antzokian izan zen, eta erdaraz egin zuen. Hirugarren urtea Zaragozan ikasi zuen. Hemen, bere lehenengo kantaldia euskaraz egin zuen. Ondoren, Bartzelonara abiatu zen, eta bertan Neuropsikiatrian espezializatu zen. 1967. urtean, haur psikiatrian espezializatu zen.

Handik aurrera, Donostiako San Miguel patronatuko Haurrentzako Neuropsikiatria Unitatean lan egin zuen ia 20 urtetan zehar. Aldi berean, abesten jarraitu zuen.

EZKONTZA

1963. urtean, etengabe Donostiatik Bartzelonara eta alderantziz bidaiatzen zuen. 1964. urtean, Marisol Bastidarekin Donostian ezkondu zen.

Hau da Marisol Bastida gaur egun.

1964. urtean, Marisol Bastidarekin Donostian ezkondu zen.

ETENALDIA

1978. urtean Mikel nekatuta sentitu zen, eta denbora batean zehar ez zuen egin jendaurreko kantaldirik. Atsedenak 1984. urtera arte iraun zuen.

Hau da Mikel Laboa gaztea zenean.

BERE MUSIKA

Mikel Laboaren abestiak poesiak abesti bilakatuta, kantu tradizionalak eta lekeitioak deritzogun abestiak dira. Bere musika oso errespetatua eta mirestua da euskaldunen artean.

Famatua bilakatu zen 1960ko hamarkadan. Ez Dok Amairu (1963-1969) taldearen sortzaileetako bat izan zen.

Hainbat musika-tresna jotzen zituen; adibidez, harmonika eta gitarra.

Disko pila bat argitaratu zituen. Bere abestirik famatuenak Txoria txori eta *Baga biga higa* direla esan dezakegu.



Hau da *Xoriek 17* diskoaren azalaren argazki bat.

Bere azkeneko diskoa 2005. urtean argitaratu zen, eta *Xoriek 17* du izena. Bere azkeneko kontzertua 2006ko uztailaren 11n Zurriola hondartzan izan zen.

HERIOTZA

Bizitza luze, zail baina alai bat izan ondoren, 2008ko abenduaren 1ean hil zen Donostian. Bere musika ezaguna izaten jarraitzen du bere heriotza eta gero, oso mirestuta delako euskaldunen artean eta oso arrakastatsua izan delako.

Hau da Mikel Laboaren argazki bat zahartzaroan.

2008 ko abenduaren 1ean hil zen Donostian.

Elisa Martínez Estébanez.

3. B.

Euskaraz bizi

- SOLAS - JOLAS 2016
- GURASOAK ETA SEME-ALABAK
- EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA
- ZINEMA EUSKARAZ 30 Film on-line
- MERKATARIENTZAT MATERIALA
- GU ERE BERTSOTAN
- UDAL EUSKALTEGIAREN WEB ORRIA
- ITZULPEN ZERBITZUA
- ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ
- LOIDI BEKA
- KALEAN BAI

Diru-laguntzak

Gaurkotasuna

- LANNAHI 3. txanda: izenematea martxoak 1-10
- Bekak 2014-2015 ikasturteko Ebazpena
- Euskaraz eskualdean
- IRUNERO aldizkaria
- Euskararen aurkibidea

berri guztiak

Euskararen agenda

«	Otsaila 2016					»
A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29						

hurrengo ekitaldiak

SOLAS JOLAS 2016

Euskararen Hilabetea 2016

Irungo leku-izenak

Ba al zenekien?
Espos berri batzuen kontua

Irungo euskara.

RSS - Gaurkotasuna